

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

Higinia Garay

Bigarren begiratua



Higinia Garay artistak interbentzioa egingo du Arriquirarreko Fatxadan martxoaren eta maiatzaren bitartean, inguratzen gaituen horren gaineko 'bigarren begiratua' proposatuz. Gaur egun, bizkor doaz irudiak bata bestearen atzetik, haiei buruz gogoeta egiteko astirik eman gabe, bigarren begiratua egiteko tarterik eman gabe. Errealitatearen narratiba modura irudiak gailentzen diren gizarte honetan, ekintza bitala da, baita oldarkorra ere, haien adierazpen-ahalmenaz ohartzea, egileak dioenez.

Higinia Garay (Higi Vandis) ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko modura ari da Bilbon, gai sozial eta feministan espezializaturiko bere estudioaren buru, 2013az geroztik. Arte Ederretako ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta aldizkariaren diseinu grafikoko master bat egin zuen Madrilgo Instituto Europeo de Diseño ikastegian, MKL design estudioan diseinatzaile-lanetan ari zela, aldi berean. Askotariko euskarriak erabiltzen ditu artistak lanerako, hala nola kartelak, dokumentalen karatulak eta diskoen azalak. Txinatar tinta eta umargoak baliatzen ditu, nagusiki, baina baditu beste teknika batzuek egindako diseinuak ere.

////////////////////////////////////
Martxoak 15 > Maiatzak 15
Plaza Arriquirar (Fatxada)
Sarrera dohainik
////////////////////////////////////

-  www.higinia.com
-  [@higinia garay](https://www.facebook.com/higinia garay)
-  [@higinia garay](https://www.instagram.com/higinia garay)

«Erritmo ezin biziagoan partekatzen eta kontsumitzen ditugu irudiak. Eta ez dago irudi tolesgaberik, subjektibotasun eta asmo jakinetatik libre dagoenik. Hala, gu irudikatzen gaituena eta gure burua irudikatzeke dugun modua egia bihurtzen da, batzuetan, eta, are gehiago, baita sinestea ere. Begirada hori deseraikitzea prozesu kolektibo beharrezkoa eta, nire proiektuetan, pertsonala da. Ilustrazioa da xede hori lortzen laguntzen didan tresna, eta orobat laguntzen dit bestelako narratiba batzuk eraikitzen aniztasunaren, feminismoaren eta giza eskubideen ikuspegitik». Higinia Garay

////////////////////////////////////




HIGINIA GARAY
AKA HIGI VANDIS

////////////////////////////////////

Fatxada programak Azkuna Zentroaren programazioa hedatzen du, espazio publikoa erabiliz, eta elkarrizketarako eta topaketarako gune berri bat proposatzen du espazio horretan.

EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

ARTE GARA IKIDEA / FATXADA PROIEKTUA
MAR 15. > MAI. 15

Higinia Garay

Bigarren begiratu

Ilustrazioa



Higinia Garay artistak interbentzioa egingo du Arriquirarreko Fatxadan, martxoaren 15etik maiatzaren 15era arte, inguratzen gaituen horren gaineko *Bigarren begiratua* proposatuz.

«Fatxadarako dudan proiektuak erakusgai egongo den lekua bera du abiaburu: Zentzoko sarrera. Trantsituko toki horren bidez, inguratzen gaituzten gauzei nola begiratzen diegun aztertu nahi dut, nola kontsumitzen ditugun irudiak. Gaur egun, bizkor doaz irudiak bata bestearen atzetik, haiei buruz gogoeta egiteko astirik eman gabe, bigarren begiratua egiteko tarterik eman gabe.

Errealitatearen narratiba modura irudiak gailentzen diren gizarte honetan, ekintza bitala da, baita oldarkorra ere, haien adierazpen-ahalmenaz ohartzea. Erritmo ezin biziagoan partekatzen eta kontsumitzen ditugu irudiak. Eta ez dago irudi tolesgaberik, subjektibotasun eta asmo jakinetatik libre dagoenik.

Hala, gu irudikatzen gaituena eta gure burua irudikatzeko dugun modua egia bihurtzen da, eta, batzuetan, baita sinesmena ere. Begirada hori deseraikitzea prozesu kolektibo beharrezkoa, eta, nire proiektuetan, pertsonala da. Ilustrazioa da xede hori lortzen laguntzen didan tresna, eta orobat laguntzen dit bestelako narratiba batzuk eraikitzen, aniztasunaren, feminismoaren eta giza eskubideen ikuspegitik», Higinia Garay artistak dioenez.



**HIGINIA GARAY
AKA HIGI VANDIS**

(Higi Vandis) ilustratzaile eta diseinatzaile grafiko modura ari da Bilbon, gai sozial eta

feministan espezializaturiko bere estudioaren buru, 2013az geroztik. Arte Ederretako ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta aldizkarien diseinu grafikoko master bat egin zuen Madrilgo Instituto Europeo de Diseño ikastegian, MKL design estudioan diseinatzaile-lanetan ari zela, aldi berean. Askotariko euskarriak erabiltzen ditu artistak lanerako, hala nola kartelak, dokumentalen karatulak eta diskoen azalak. Txinatar tinta eta urmargoak baliatzen ditu, nagusiki, baina baditu beste teknika batzuek egindako diseinuak ere.



Higinia Garayren lana interesgarria iruditzen bazaizu, zator AzShopera: euskal artistak egindako ilustrazioekin atondutako jatorrizko laminak, kamisetak eta panpinak aurkituko dituzu.



Martxoak 15 > Maiatzak 15
Plaza Arriquirar (Fatxada)
Sarrera dohainik



 www.higinia.com

 @higinia garay

 @higinia garay